



JAKINARAZPENA

Agiri honen bidez, udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 25ean honelako erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

“BASOALDEA” ETA “ANTIGUAKO AMA” URBANIZAZIO ERABERRITZE OBREN PROIEKTUAREN IDAZKETA ZERBITZUA:

Lekeitioko Udalak egoki ikusi du “Basoaldea” eta “Antiguako Ama” urbanizazio eraberritze obren proiektuaren idazketa zerbitzua kontratatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, hau ikusita, honako hau erabaki du:

1. “Basoaldea” eta “Antiguako Ama” urbanizazio eraberritze obren proiektuaren idazketa zerbitzua kontratatzeko espedienteari **baietza** ematea.
2. Lan hori burutzeko gastuari, administrazio-baldintza zehatzen agiriari eta baldintza teknikoan agiriari **baietza** ematea.
3. Esleipena egiteko jardunbideari **hasiera** ematea.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia jakinarazten dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Erabakia behin betikoa da bide administratiboan. Halere, jakinarazpena hartzen duzunik hasi eta bi hilabeteren barruan, erabaki horren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Euskal Herriko Epaitegi Gorenean, horrela ezartzen du-eta 29/1998 Legearen (uztailaren 13koa, administrazioaren auziak arautzen dituena) 8 eta 46. artikuluek. Lege hori bat dator 39/2015 Legearekin (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena).

Edonola ere, zuk nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari, jakinarazpena hartzen duzunik hasi eta hilabetearen barruan.

Hori guztia bat dator gorago aipaturiko 39/2015 Legearen 112, 123 eta 124 artikuluek ezarritakoarekin. Dena dela, beste edonolako ekintza edo errekurtsoa aurkez dezakezu, zure eskubideak hobeto defendatzen direla uste baduzu.

NOTIFICACIÓN

Por la presente le notificamos que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 25 de octubre de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:

SERVICIO DE REDACCIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE REFORMA DE URBANIZACIÓN “BASOALDEA” Y “ANTIGUAKO AMA”:

El Ayuntamiento de Lekeitio ha estimado conveniente contratar el Servicio de redacción del proyecto de obras de reforma de urbanización “Basoaldea” y “Antiguako Ama”.

Por todo ello, la Junta de Gobierno Local acuerda:

1. **Aprobar** el expediente de contratación Servicio de redacción del proyecto de obras de reforma de urbanización “Basoaldea” y “Antiguako Ama”.
2. **Aprobar** el gasto, el pliego de cláusulas administrativas y pliego de cláusulas técnicas.
3. **Iniciar** el procedimiento de licitación.

Se les notifica el acuerdo de la Junta de Gobierno Local, para que surta los efectos oportunos.

Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, podrán interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior del País Vasco, en base a lo establecido en los arts. 8 y 46 de la Ley 29/1988 (de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa), en concordancia con la Ley 39/2015 (del 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas).

No obstante, podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación.

Todo ello conforme a lo establecido en los arts. 112, 123 y 124 de la Ley 39/2015 anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.



LEKEITIOKO UDALA
Idazkaritza

Lekeition, 2019ko urriaren 25ean

Lekeitio, 25 de octubre de 2019



Jone Goitia Goienetxea
Lekeitioko Udaleko Idazkaria